

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

2220

AGINDUA, 2024ko maiatzaren 2koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Ekonomia eta Ogasun Sailean goi-kargudun baten idazkariaren lanpostu bat izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdia ebazten duena.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 102.2.c) artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta bat etorritik Ekonomia eta Ogasun Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia egiteko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2024ko martxoaren 21eko Aginduak (2024ko apirilaren 21eko EHAA) laugarren oinarrian xedatutakoarekin

HAU XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Bete gabe uztea Ekonomia eta Ogasun Saileko Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritzako goi-kargudun baten idazkariaren lanpostu bat (520010 kodea eta 210. dotazioa) betetzeko deialdia.

Bigarrena.– Agindu honek 2024ko maiatzaren 2tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari, agindua EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, agindua EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik bi hil igaro baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 2a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.